



## **Segurtasun protokoloa Gauekoak 2020 jardueretan, COVID-19 kutsatzeak prebenitzeko**

Gauekoak-en programatutako jarduera bakoitzera modu seguruan joateko protokoloa, osasun-segurtasuna bermatze aldera eta indarrean dagoen araudia betez:

- Jarduera guztiak esparru mugatuetan egingo dira, edukiera mugatuarekin, sarrera-kontrolarekin eta eserlekuen aurre-esleipenarekin. Aurre-esleipena egingo da posta elektronikoko bidezko izen-ematea duten tailerretan eta plataforma digitalen bidezko gainerako jardunetan. Bi kasuetan, parte-hartzaileen datu nahikoak jasoko dira, identifikatu eta arakatu ahal izateko, beharrezkoa izanez gero.
- Erakustaldien eta ikuskizunen kasuan, ezingo da zutik egon, aulkiak jarriko dira, metro eta erdiko distantziari eutsiz.
- Espazio itxietan jarduera irekiak hasi aurretik, audio bat emango da, ekitaldian segurtasuna mantentzeko eta irteteko modua adierazteko.
- Sarbidea eta erosotasuna errazteko, nahikoa denboraz joan beharko da. Jarduerak hasi baino 20 minutu lehenagotik sartu ahal izango da. Esparruetako sarbideetan kontrolak ezarriko dira, pilaketak saihesteko eta segurtasun-distantzia bermatzeko.
- Sartzeko eta irteteko ibilbideak adieraziko dira, pertsonen arteko bidegurutzeak saihesteko. Erakundeak bertaratutako pertsona bakoitzari dagokion lekua adieraziko dio.
- Nahitaezkoa da maskara erabiltzea. Parte-hartzaile bakoitzak bere maskara eraman beharko du.
- Jarduerak irauten duten bitartean, esleitutako lekuan egon beharko da. Jardueran zehar eremutik irten behar izanez gero, ezingo da berriro bertara sartu.
- Irteera modu mailakatuan egingo da, erakundearen argibideei jarraituz.

### **Izena ematea duten tailerretarako esku-hartze espezifikoak.**

Harrera.

- Jarduerarako sarbidean, gutxienez 1,5 m-ko segurtasun-tartea mantendu beharko da.
- Zerrenda pasatuko da, izena eman duten pertsonen sarbide ordenatua bermatzeko.
- Parte-hartzaileen tenperatura hartuko da.
- Erakundeak sarbide-tarteak markatu ahal izango ditu

Garapena.

- Edukiera, aireztapena eta distantzia kontrolatuko dira.
- Eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea erraztuko da.
- Banaka esleitutako materiala erabiliko da bakarrik.
- Material partekatua erabiltzekotan, garbi egon behar du, eta erabili ondoren garbitu.

- Tailerraren garapenetik produkturen bat lortzen bada, pertsonala eta besterenezina izango da.

Agurra.

- Antolakuntzak eta, beharrezkoa bada, parte-hartzaileek sortutako hondakinak behar bezala kenduko dituzte.
- Eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea erraztuko da
- Irteera bat ezarriko da, tarteka, beharrezkoa izanez gero, eta beti erakundearen jarraibideen arabera erabiltzeko.
- Jarduera amaitzean, garbiketa sakona egingo da.